

noaua



TicketBAI badator:
Jarduera ekonomikoren
bat egiten duten guztiek
aplikazio bat instalatu
beharko dute

Daniel Scott:
“Bigarren liburuan
rapa da berrikuntza”

Jon Arroyo,
Zubietako alkatea:
“Herriaren iritzia
oso garrantzitsua da
edozein erabaki
hartzeko garaian”



5. or.

KAFE GARAIA

Esther Arrojeria:

“Usurbil K.E. bezalako taldeek
egiten duten lana oso
garrantzitsua da”



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO



**FUNERARIA
GONZALEZ**
EHORZTETXEA

munalurra 8, USURBIL

*EUSKAL HERRI OSOAN ZERBITZU EMATEN DUGU
BEILATOKI GUZTIAK, ERRAUSKETAK*

**zerbitzu pertsonala,
eta familia bakoitzari egokituta**
ASEGURU GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU
GURE FUNERARIAARA DEITU ZUZENEAN
ETA DENETAZ ARDURATUKO GARA

943 36 21 63 (24 ordutz)

www.funerariagonzalez.es

ARATZ
zabaleta anaiak



32 urtez baserritar eta Arrantzaleekin zuzenean lan egiten
·eguneko menua · karta · pintxoak · bokatak · plater konbinatuak

Igara Bidea, 15, Donostia

erreserbak: 943 21 92 04

Albisteak iruditan

Ezbeharra San Inazion

Ezbeharra aste hasieran San Inazio biribilgunetik hurbil. Dimentsio handiko kamioi bat irauli zen. Bidean zetorren auto batek haren aurka jo zuen gero. Kamioiko gidaria suhiltzaileek atera eta ospitalera eraman zuten. Beste autoak aurrealdea zuen kaltetua.

Iraulketara zaratsua izan zen, inguruko bizilagunek NOAUA!ri azaldutakoaren arabera. Istripuak, Atxegalde pareko N-634 errepidea itxiarazi zuen. Kamioiak porlana zeraman eta zamaren zati bat bidera jausi zitzaion. Itxuraz, N-634 errepidetik San Inaziora sartzeko dagoen bihurtunea igarota irauli zen kamioia. Ezbeharra izan eta berehala gerturatu ziren udaltzainak, Ertzaintza, suhiltzaileak eta anbulantziak. Bidea zatika irekitzen joan ziren, kamioia garabiak eraman arte.



Astelehen goizean ezbeharra izan zuen kamioia lurrean iraulita.

Laburrean

Eremu gorrian diren udalerriez inguratuak

Eremu gorrian dira Gipuzkoako 5.000 biztanletik gorako udalerri gehienak. Usurbil da salbuespen bakarretakoa. Aste hasieran 174,38ko intzidentzia zuen covid19ak udalerri honetan. Eremu horian zen.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. "PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik", eskatzen du Udalak.

Hurrengo aldirikaria, irailaren 10ean

Eskuartearen duzuen da, uda aurreko azken astekaria. Datorrena, 876. NOAUA! irailaren 10ean kaleratuko dugu. Ordu-rako, zorion agur edo oharrik baldin baduzue erredakzioa@noaua.eus helbidera helarazi, irailaren 6a baino lehen.

noaua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkarte@noaua.eus /// www.noaua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeka.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeka, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Luis Aranalde

Ignatius 500



"San Inazio betirako eraldatu zuen esperientziaren edo konbertsioaren bosgarren mendeurrena munduan zehar ospatuko da".

1 521eko maiatzaren 20an Loiolako San Inazio Iruñea defendatzen ari zela zauritu egin zen. Gaixondoan bizitako esperientziaren ondorioz, bere etxea utzi eta bere bizitzari beste norabide bat emateko asmoz abiatu zen. Manresan koba batean egin zuen otoitz eta gogoeta sakon bat. San Inazio betirako eraldatu zuen esperientziaren edo konbertsioaren bosgarren mendeurrena ospatuko da munduan zehar. Aurtengo maiatzaren 20an hasi eta 2022ko uztailaren 31n amaituko dira ospakizunak.

"Caballero y cortesano, dado a las vanidades del mundo"; horrela omen zen bere autobiografiaren hasieran agertzen denez. Hantetan bakarrik ez zen zauritua izan, bere harrokerian edo handiustean batez ere. Orduan hasi zuen antzaldaketa ibilbide serio bat, meditatuz, erromes eta eskale gisa urte batzuk eginez.

Hemendik egun batzuetara ospatuko dugu San Inazioren festa. Nik badakit santuen ospakizun mundu hori asko epeldu dela; garai bateko gura hura ia-ia itzali da. Baina nahiz sinesteduna ez izan edo sinemen motela eduki, San Inaziok ahortzi ezin

LUIS ARANALDE
"Hemendik egun batzuetara ospatuko dugu San Inazioren festa. Nik badakit santuen ospakizun mundu hori asko epeldu dela. Baina nahiz sinesteduna ez izan, San Inaziok ahortzi ezin den alderdi bat badu: artean, kulturen eta historian utzi duen aztarna"

den eta azpimarratu behar den alderdi bat badu: artean, kulturen eta historian utzi duen aztarna. Gainera, beren bizitzan etika erreferentzia bila dabilen zentzuz, nekez aurkituko dute San Inazio baino sutsuagorik behartsuak maitatzen eta baztertuak gizartratzen.

Beti konparatu izan ohi dira Loiolako santua eta Martin Lu-

tero: hau iraultzailea eta beste kontserbadorea. Berandu konturatu naiz San Inazio askoz koherenteagoa izan zela ebanjelioko mezuarekin Luterok baino. Honek kritika zorrotza egin zion garai hartako elizari indulgentziak zirela eta. Salaketa guztiz zuzena. Baina, bere bizitzaren azken aldera, jauntxoekin bat egin zuen eta palazio batean pasa zituen bere azken urteak. Loiolakoak, aldiz, bat egin zuen bere bizitzaren azkenerraino garai hartako bi kolektibo baztertuenekin: judutarrak eta pobreak.

1- Judutarren defendatzaile: mesprezatu eta erasotako talderik izan bada historian zehar, judutarrena da gehien agian. Garai hartan oso ausarta izan behar zen beren defentsan ateratzeko. Judutarren gainean esaten zena: usain txarra botatzen zutela, pertso-

na miserableak zirela, joera makur guztien pertsonifikazioa, kriminalen konplizeak, ustelak eta abar. Euskal Herrian antzeko fama txarra zutenak "agoteak" izango ziren agian. Luterok berak sekulakoak esaten ditu judutarren aurka. Historialari askorentzat 20. mendeko alemaniarren antisemitismoaren aitzindari izan zen berori. Inazio bi arrazoi nagusik bultzatzen zuten bere jarrera hori edukitzera: "maita ezazu hurkoa zeure burua bezala", ebanjelioko agindu nagusi hau alde batetik eta Jesus bera judutarra izan zela bestetik, eta beraz, arraza horrekiko errespetu handia sentitzen zuela.

2- Pobreen babesle eta laguntzaile: pobreen aldeko bere ekintzen artean honako hauek azpimarra daitezke: dirua lortzea xumeei emateko; kartzelan zeuden presoek laguntzea; baldintza miserableetan lan egiten zuten emagalduek babestea eta beroientzat Santa Marta aterpetxea eraikitzea; izurriteak eta gosea zabaltzen zirenean, kaltetuei esku bat eranstea. Ideiaz kontserbadorea, baina egiteaz iraultzailea izan zela esango nuke. Ekiteek juzgatuko gaituzte, ez ideiek. Saninazioak ondo pasa.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapiain

Luis Aranalde

Josue
Igeltseritza

606 37 21 05

Atallu pol.28 USURBIL

www.noa.eus
USURBILGO ATARIA

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI
650 31 31 91 USURBIL

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

Ika-mika

Pentsiodunen mugimenduaren borrokak merezi du

Azkenean, pentsioak KPIaren arabera errebalorizatzea lortu dugu, pentsiodunen mobilizazioen hasieratik eskuratutako konkista, eta gure presioaren bidez, legean jasotzea erdietsi dugu. Era berean, positiboa iruditzen zaigu maileguak transferentziekin ordezkatzeta, baita izateko bikoteei erreferentzia egiten dien puntuak, kotizatzeko eskubidea prestakuntza-programa guztietan zabaltzea eta familia-zaintzaileen hitzarmen bereziak hobetzea.

Baina Pentsioen Sistema Publikoaren aurkako mehatxuak mantendu egiten dira:

Enpresa plan pribatuen bidezko Pentsioen Sistema Publikoaren pribatizazioa mantendu egingo da, eta hemendik aurrera zehazten hasiko dira, erreformaren bigarren zatian sartzeko.

Iraunkortasun-faktorea formalki indargabetzen da, baina izena aldatuta duen antzeko beste batekin mehatxu egiten digute, hots, belaunaldi arteko ekitate-faktorearekin. Horrek eragin negatibo bera izango du pentsio berriei dagokienez, eta pentsio horiek modu jarraituan eta metatuan murriztuko dira, 2011ko erreforman inspiratutako printzipio berberetan oinarritzen delako.

Akordioak 40 urtetik gora kotizatzen dutenen erretiro arretaratua zigortzen du, %21era arte, eta erretiroa atzeratzen dutenei diru-sarrera bat ematen die. Behin betiko ahaztu dituzte 40 urte kotizatuta, koefiziente horiek indargabetzea eskatzen duten Legez Besteko Proposamenak (LBP).

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean klausula bat sartuko da, urtero BPGaren %2 inguru transferitzeko Gizarte

Segurantzari, Estatuko aurrekontuen bidez. Hala ere, ez da "Sanatu bat biluztu behar beste bat janzteko", eta baliabide horiek ez dira ongizate sozialaren kontura joan behar (osasuna, irakaskuntza, mendeotasuna...) baizik eta sektore sozial pribilegiatuei zerga berriak ezarri behar zaizkie.

Sistemaren finantza-egonkortasunari buruzko ziurgabetasuna mantendu egiten da, baldin eta lan-erreforma indargabetzen ez bada, kalitatezko enpleguaren aldeko apustu irmoa egiten ez bada eta Estatuak Gizarte Segurantzarekin duen zorra aitortzen ez bada.

Pentsioen %100era iristeko beharrezkoa den kotizazio-urteen igoeraren mehatxuak indarrean jarraitzen du, eta urtebete atzeratzen da, besterik gabe. Pentsaezina da Gutxieneko Pentsioen gehikuntza nabarmena ez aipatzea, eta

gero eta urrunago geratuko dira Europako Gutun Sozialeko nahikortasun-irizpideetatik eta 1080 eurotik. Era berean, onartezina da genero-arrakala desagerrarazteko inolako urratsik ez egitea.

2011ko erreformaren pentsioen murrizketak berretsi ditu akordioak; Iraunkortasun Faktorearen izena aldatu du, baina bere funtsari eutsi dio, Pentsio Sistema Publikoaren pribatizazioari eta murrizketa berriei ateak zabalik utzi dizkie.

Pentsiodunen Mugimenduak 2013ko erreforma indarrak gabe uztea lortu dugu eta Pentsioen Sistema Publikoa bideragarria dela erakutsi dugu, kalean jarraitu behar dugu garaipen berriak lortzeko, gure aldarrikapen asko lortzeke baitaude.

Pentsiodunak aurrera.

**Alderdi Ederreko
Pentsiodunen Batzarra**

Ika-mika

Platon eta ni

Ixiltasuna munduan
Begiradak

Ezin elkar gehiago ezagutu
Bide desberdinak
Ezin bihotzak lotu.

Zure eskuak ikutzeko ametsa
Ikusiko gera agian
Ikusi gabe, miña

Ilargia eta zu.
Ametsetan hitza eta zirrara
Ilargia, Platon eta ni

Ez det momentua ikusten
Zurekin egoteko
esateko

Maite zaitut
ikusi zintudan lehen momentutik

Zenbatetan bilatu,
Zenbatetan imaginatu

Maite zaitut
Errexa da esaten.

Ekaitz Erreka

* Ika Mika atalerako idatzia gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUAik ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatzia egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatuta eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia. Hurrengo alea: irailak 10. Idatzia ekartzeko azken eguna: irailak 6.

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Zuen publizitatea hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Iñaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com
600 024 825

Esther Arrojeria, Bera Berako jokalaria: “Kirol partidak ikuslerik gabe ez dira gauza bera”

NOAUA!ren 25. urterenaren aitzakian, ‘Kafe garaia’ izeneko atala abiarazi dugu. Elkarrizketa hauek sarean ikus-entzun ditzakezue, noaua.eus/bereziak/kafe-garaia helbidean. Esther Arrojeria eskubalo jokalaria-rekin batu gara aste honetan.

NOAUA! Pandemia garaian neurri zorrotzak jarraitu behar izan dituzue ez kutsatzeko, publikorik gabe jokatu behar izan duzue, PCR proba asko egin behar... Ez zen denboraldi erraza izango, ezta?

Esther Arrojeria: Orokorrean ez da batere denboraldi erraza izan eta pandemia honek kirolean ere izugarritzko eragina izan du. Hasteko, zaleturik gabe jokatzeari arraroa izan da. Kirol lehiaketa, ikuslerik gabe, ez da gauza bera. Partidek entrenamendu itxura zuten...

Eta bestetik, zuk aipatzen duzun hori guztia dago. Entrenamendu garaian, kantxara sartzeko orduak oso zehatzak ziren; ezin genuen pistan beste taldeekin gurutzatu; aldagelak ezin izan ditugu erabili eta askotan etxean duxatu behar izan dugu... Denboraldia ez da batere erraza izan.

Bestalde, klubak ardura extra bat exijitu digu, itxialdi batek gure kirol errendimenduan izan zezakeen eraginarengatik. Konfinatuz gero, hamar egun edo gehiago etxean sartuta



“Aldagelak ezin izan ditugu erabili eta askotan etxean duxatu behar izan dugu... Denboraldia ez da batere erraza izan”.

ESTHER ARROJERIA

“Zorionez talde osoa

behin bakarrik konfinatu behar izan gara”

egon behar genuen eta tarte horretan partida tokatzen bazen, partida atzeratu beharra zegoen. Eta atzeratutako norgehiagoka hori errekuiperatu ahal izateko, hurrengo astean bi partida jokatu beharra zeuden.

Itxialdiak fisikoki zer eragin izan zezakeen gudan, hori ere kezka iturri zen klubarentzat. Azkenean, faktore asko egon dira jokoan, baina gu, zorio-

nez, talde osoa behin bakarrik konfinatu behar izan gara. Eta denboraldia normal samar osatu dugu. Baina talde batzuk bitan edo hirutan konfinatu behar izan dute. Horrek dakarren guztiarekin. Lehiaketako erritmoa eta jarraikortasuna eten egiten da horrelakoetan.

Eskubalo jokalaria izateaz gain, erizaina ere bazara. Pandemiak ze neurritan eragin du zure lan jardueran?

Orain betiko martxan ari naiz lanean, baina hasiera-hasieran jaitsi egin zen lan kopurua. Ni batez ere etxez etxe ibiltzen naiz, sendaketak eta antzeko lanak egiten. Itxialdi garaian, behar-beharrezkoak ziren bisi-

tak bakarrik egiten genituen, gainontzeko zerbitzuak eten egin genituen eta zentroa ere itxita egon zen. Nik Donostiako zentro batean egiten dut lan, Grosen, eta zentroa itxita egon zen bolada batean. Beraz, lan kopurua jaitsi egin zen. Orain normaltasun batera iritsi gara.

Nire jarduerari dagokionez, erizain gisa PCR eta antigeno proba pila bat egin behar izan ditut. Baina bestela egia esan, nire jarduna ez da gehiegi aldatu. Nik uste dut ospitaleetan eman direla aldaketa gehiago.

Lehen arreta zerbitzuan bereziki, ezta?

Hori da.

“NOAUAK lan handia egiten du herri mailan”

NOAUA! Hedabide gisa, paporean eta sarean ari gara. Elkarre bezala, kultura arloan eta aisialdian. NOAUAlk zer nolako ekarpena egin dio zure egunerokoari?

Esther Arrojeria: Herri mailan

lan handia egin duela eta egiten duela uste dut. Herriko kontu asko NOAUA!ri esker iristen zaizkit. Orain egia esan, sare-sozialen bidez jarraitzen dut gehien bat, twitterren eta gainontzeko sare sozialetan. Herri

mailako albiste asko NOAUA!ri esker ezagutzen ditut. Trafiko inguruko gorabeherak, adibidez. Errepide nazionalako obrak esate baterako, NOAUA!ren bidez jarraitu nituen.

Herri mailan informazio itu-

rri gisa lan handia egiten duela uste dut, baina baita beste esparru batzuetan ere, aisialdian edota kulturaren. Benetan uste dut horrelako azpegitura bat behar beharrezkoa dela herri bakoitzean.

“Taldeko jokalaria guztiak lan-kontratua dugu”

NOAUA! Emakumezkoen kirol jarduerak ikusgarritasun handiagoa lortzen ari dira eta, horri esker, hainbat eta hainbat profesionalizatzen hasi dira. Hala ere, aldeak oso handiak izango dira oraindik gizonetzkoen eta emakumezkoen artean, ezta?

Esther Arrojeria: Pausoak eman dira, hori errealitate bat da, baina egia da oraindik asko dagoela egiteko. Bestalde, emakumezkoen eta gizonetzkoen arteko aldea aparte utzita, eskubaloia 2. mailako kirol gisa ikusten dela. Beraz, aldea are eta nabarmenagoa da. Baina esaten dizudan bezala, aurrerapauso handiak eman dira. Nire klubean adibidez, denak langile gisa kontratatuta gaude, baina egia da liga bereko beste klub askotan ez dela hori gertatzen. Soldatak oso oso prekarioak dira, askok ez dute gizarte segurantzarik izango. Egoera benetan penagarria da. Zure dedikazioa profesionala da baina bueltan jasotzen duzuna ez. Hala ere, pausoak ematen ari garela uste dut eta saiatzen ari dira emakumezkoen eskubaloia ikusgarritasuna ematen, emakumezkoen eta gizonetzkoen kirol jarduerak parekatzen... Lan asko dago aurretik baina pixkanaka ari gara.



“Nire klubean langile gisa kontratatuta gaude denak, baina liga bereko beste klub askotan ez da hori gertatzen”.

ESTHER ARROJERIA

“Kudeaketa arloan Bera Bera eskubaloi taldeak lan handia egin du urteotan eta orain ari gara ahalegin horren emaitza ikusten”

Oso garai ona ezagutu duzu Bera Bera eskubaloi taldean. Zazpi liga irabazi dituzu honez gero. Ohitu egiten da bat irabaztera ala berdin-berdin baloratzen al da garaikur bakoitza?

Txapelketa bakoitza berezia

dela uste dut. Azkenean guk badakigu zer nolako ahalegina dagoen garaipen bakoitzaren atzean, eta urte hauetan guztietan ze lan egin den emaitza hauek guztiak lortzeko.

Bera Bera eskubaloi taldeak azken urteetan izan dituen arrakastak ikusita, exijentzia maila bat ezarri zaigu kanpotik. Guk gure buruari urtero jartzen dizkiogun erronkak ere tamainakoak dira: titulu guztiengatik borrokatzea eta garaipenen borrokan sartzea.

Jokalariena ez ezik, klubaren lana ere azpimarratzekoa izango da hortaz.

Garaipen hauen atzean egon den lana ikaragarria izan da eta ez bakarrik jokalarien aldetik. Kudeaketa arloan Bera Bera eskubaloi taldeak lan handia egin du urteotan eta orain ari gara ahalegin horren emaitza jasotzen. Ligak irabazten hasi aurretik ere, aurrekontuak ondo kudeatzen asmatu dute.

Zailtasunak zailtasun, oinarri sendoa du taldeak, ezta?

Bai, eta esan beharra dago ni momentu onenean iritsi nintzela Bera Bera taldera. Azken bederatzi ligetatik zazpi irabazi ditugu.

“Ez nintzateke Bera Bera taldera sekula iritsiko, aurretik Usurbilen emandako pausoak ez banitu eman”

NOAUA! Formazioa oso garrantzitsua da. Udarregi ikastolan edota Usurbil K. E. taldean egiten den lana nola baloratu zenuke?

Esther Arrojeria: Oso lan garrantzitsua egiten dute Usurbil K.E. taldeak eta beste herri guztietako klub guztiek. Eskubaloian behintzat, Bera

Bera eta Bidasoa bezalako taldeak mantentzeko ezinbestekoa da beste klub horiek guztiek egiten duten atzeko lana. Askotan itzalean bezala gertatzen dela iruditzen zait, baina lan garrantzitsua egiten dute. Benetan diot. Hasteko, hurrak erakartzen. Zentzu horretan, Usurbilen oso lan ona

egiten dute. Jubenil eta kadete mailako taldeak askotan lehia-tu dira Euskadi mailan, Gipuzkoako mailatik haratago.

Senior taldeak 2. mailara igotzeko fasea jokatu berri du. Iruñean bertan egon nintzen, partida bat ikusten.

Lana oso ondo egiten duen klub bat da Usurbilgoa. Bene-

tan eskertzekoa da gainera, ze boluntario gisa egiten den jarduera bat da. Maizago eskertu beharko genieke egiten dutena. Esan izan dudana moduan, ni ez nintzateke Bera Berara sekula iritsiko, aurretik Usurbilen emandako pausoak ez banitu eman.




Itxaso Orbeagozo

Txertatu nahi ez dugun gazteak

Hilabeteak eta hila-
beteak daramatzate
telebistetako tertulia
saio guztietan pandemiaren
oker guztiak gazteon gain
jartzen. Txertaketa garaia
dugun honetan ere, kexu
baino ez dute batzuk. Opo-
rretan baino ez omen dugu
pentsatzen, eta lagun-hur-
koak bost axola omen digu.
Gehiengoak txertatu nahi ez
duela, eta erantzukizun falta
leporatu digute ekainean ze-
har. Batzuk ahoa itxiko dute
noizbait...

Uztailaren 9a genuen txer-
taketa-ordua hartzeko lehen
eguna, 15:00etatik aurrera
30 urte azpikoen txanda, 16
urte bitarte. 14 urteren tarte-
ko adin-taldea, orain arteko
handiena. Horren aurrean,
gazte gutxi batzuk ordua
hartuko zutela zioten tele-
bistako sasi-jakintsu guztiek,
dosiak sobera geratu zirela
gure erruz, eta zigorrak ere
merezi ditugula. Okerrena
da, ordea, hori zioten askok
zaharrenekin eta talde zaur-
garriekin batera hartu zutela
txertoa, tokatu ere egiten ez
zitzaienean. Hori bai eran-
tzukizuna eta borondatea.

Eguna iritsita, zurrumu-
rruak goizean goiz: Osakide-
tzaren webgunea funtziona-
tu ezinda, jende gehiegi eta
kolapsoa. Bazirudien jendea
hitzordua hartu nahian ari



“Txertatze-egunak hautatzeko klik egin, eta zer gertatuko: 96.000 pertsona daude zure aurretik”.

ITXASO ORBEGOZO

**“Azkenean,
gazte axolagabeok lortu
dugu hitzordua inolako
dosirik alferrik galtzeko
beharrrik gabe.
Osakidetzan izan den
kolapsorik handiena
sortu dugu, eta
erantzukizuna badugula
erakutsi dugu”**

zela ordua baino lehen. Larri-
tasuna nagusi. Inor baino ar-
giago sentitu nintzen orduan,
eta telefonoa hartuta deitzea
erabaki nuen 2025 baino le-
hen txertatze-egunak lortze-
ko. Kuadrilako whatsappean
lehen laguna zita lortuta: uz-
tailaren erdialderako. 14 dei

egin nituen jarraian: “deian
errorea”. Hamabosgarrenean,
bi minutu musikatxo entzun
ondoren, aurretiaz grabatu-
tako ahotsa nire zerbitzura.
NAN zenbakia eta arretarako
hizkuntza aukeratu ostean,
hitzordua hartzeko 1 zenba-
kia sakatu, eta horra eguna
eta ordua: uztailaren 30a. Ka-
sualitatea edo kausalitatea tar-
teko, ezin zitara joan egun ho-
rretan. Ni bai pertsona azkar
eta ernea, bazterrak nahasten
ez daukat parekorik.

Berriz deitu behar ordua
ezeztatu, eta berriz hartzeko.
47 dei gehiago egin nituen
ordua ezeztatu asmoz, baina
“deian errorea”, besterik ez.
Azkenekoan txistu-hots jasa-
nezina. Mezuren bat iritsiko
zait auzitegietatik Osakidetza

jazartzea leporatuta. Ezer
lortuko ez nuela ikusita,
pare bat orduz lasaitu eta
berriz ere saiatzea erabaki
nuen. Larritasuna oster. Hala,
eguerdiko ordubiak
aldera berriz saiatu nintzen
kontua lasaitxoago egongo
zelakoan. Ordenagailua piz-
tu, eta zer-nolako sorpresa,
webgunea martxan. Txer-
tatze-egunak hautatzeko
klik egin, eta zer gertatuko:
96.000 pertsona daude zure
aurretik. 2025 arte txertatu
gabe martxa honetan. Larri-
tasuna berriz ere. Ordu eta
erdi zain egon ostean, azke-
nean hartu nuen ditzosozko
hitzordua abuzturako.

Azkenean gazte axolaga-
beok lortu dugu hitzordua
inolako dosirik alferrik gal-
tzeko beharrrik gabe. Osaki-
detzan izan den kolapsorik
handiena sortu dugu, eta
erantzukizuna badugula
erakutsi dugu. Azkenak,
baina dagokigunean hartu
dugunak. Ez dut esan nahi
pandemian dena ondo egin
dugunik edo zenbait gerta-
eraren errua gurea ere ez
denik, baina gazteok izan
gara gaitz guztien erantzule
nagusiak. Ziur, ordea, orain-
dik ere etorriko diren kalte
guztien erantzukizuna izan-
go dugula. Txertaketa hasita
izango dute orduan ere zer-
bait, gogorik gabe hartuko
dugula edo.

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra
693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

ERAMATEKO!!!
-EGUNEKO MENUA
-KARTA
ARTZABAL (ESKANEATU QR
KODEA IKUSTEKO)
BASERRIA · JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com **943 36 91 39**

Otar-Goxo
Elizagaia
Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil

Estitxu Berasategi: “Helburu bakarra disfrutatzea da”

Estitxu Berasategi zubietarrak ibilbide oparoa egin du orain arte eskubaloian profesionalen. Usurbilgo taldean hasi, Bera Berarekin fitxatu, atzera herriko taldera itzuli, eta orain, Zuazo taldearekin fitxatu du. Barakaldoko taldearekin arituko da denboraldi honetan. NOAUA!rekin partekatu ditu berriak eta denboraldirako aurreikuspenak.

NOAUA! Zuazok fitxatu zaitu. Espero al zenuen horrelako berririk jasotzea?

Estitxu Berasategi: Espero ez. Neure buruarekin hausnartzen nuen talderen batek deituz gero zer egingo nukeen, eta hasieran ezezkoa izaten zen. Lagunak ditut Zuazon eta beste talderen batean, eta galdetu izan zidaten behin baino gehiagotan zer egingo nukeen edo nahi nukeen haiekin jokatu. Ofizialki deia jasotzearena ez nuen espero.

Nola hartu duzu berria?

Ezezkoarekin nenbilen buruan deia jaso nuen arte. Deitu zidaten momentuan neure burura ez zen ezezkorik etorri, eta horri buelta batzuk eman ostean, ezezkoa emateko arrazoirik



Usurbil K.E. eskubaloian aritu zen iaz. Denboraldi berrian Zuazorekin jokatu du lehen mailan.

ESTITXU BERASATEGI

“Zuazo eskubaloian taldearen deia jaso nuen, ezezkoa emateko arrazoirik topatu ez nuen, baiezkoa ematea erabaki nuen”

eta asmorik topatu ez nuen, baiezkoa ematea erabaki nuen. Sorpresa modura hartu nuen, eta baiezkoa azkenean.

Nola ikusten duzu taldea?

Euskadin bi talde daude: Bera Bera eta Zuazo. Nik bietan jokatzeko aukera izango dut. Zuazo eskubaloian taldea eza gutzen dut haien aurka jokatu izan dudalako, baina ez dakit taldearen proiektua zein den edo nolakoa den. Taldekideak orokorrean gazteak dira, eta ingurukoak baita. Hortik harago, ez dakit oso ondo nolako proiektua daukaten marraztuta.

Barakaldokoa da taldea. Hara joango zara bizitzera edo hemen jarraituko al duzu?

Abuztuaren hasieran jada taldearekin entrenatzen hasiakoa naiz, eta han biziko naiz. Kontua da oraindik urtebete geratzen zaidala ikasketak bukatzeko, eta sarri itzultzea tokatuko zaidala. Hori pisutsua egin dakidake, baina uste baino gehiago atzera eta aurrera ez ibili beharra izatea espero dut.

“Ez diot presiorik jarriko neure buruari”

NOAUA! Kirol jardueraren profesionala eta ikasketak edota lana uztartzea erraza egiten al zaizu?

Estitxu Berasategi: Oraingo ez zait lanarekin uztartzerik tokatu, beti ikasketekin uztartzea tokatu zait. Inguruan jendea ikusi dut lan egiten duena, eta nik uste lan finko bat izanda zaila dela bi arloak nahi bezala uztartzea. Batzuetan astean zehar bidaiatzea ere tokatzen zaigu partidak jokatzeko, eta lanean malgutasunik ezean oso zaila da bi gauzak

mantentzea. Ikasketen kasuan, nik uste errazagoa dela egun batzuk unibertsitatara joan gabe egotea lanera joan gabe egotea baino. Gutxi batzuk eskubaloia dute lanbide bakartzat, baina ezinezkoa da bizitza osorako eskubaloian soilik lan egitea. Niri azterketa egunen bat aldatu izan didate eskaera aurretiaz eginda, edo lan estraren bat egitea klase askotara joan ezin izan dudalako. Egoera ikusi behar, baina niri orokorrean ez dit arazo larriegirik sortu inoiz.

“Bera Beran gozatu nuen, baina agian ez behar beste” Eskubaloian zein helburu dituzu aurrerantzean?

Bera Beran aritu nintzenean esperientzia desberdina izan zen. Disfrutatu nuen, baina agian ez behar beste. Hori jakinda, oraingo nire helburu bakarra disfrutatzea da behar den bezala, eta ez dakit gero zer etorriko den, baina ez diot helbururik ez presiorik jarriko neure buruari. Nahi gabe itzuli naiz lehen mailan jokatzera, eta ikusiko dugu non amaitzen dudan.



“Nahi gabe itzuli naiz lehen mailan jokatzera”, aitortu digu Estitxu Berasategik.

Jon Arroyo, Zubietako alkatea: “Herriaren iritzia oso garrantzitsua da edozein erabaki hartzeko garaian”

Alkate aldaketa egin zuten duela aste batzuk, eta Zubietan festei begira egoteaz gain, etorkizunari begira ere badaude. Jon Arroyok hartu du Herri Batzarreko alkateketa kargua, eta NOAUA!rekin partekatu ditu etorkizuneko asmoak.

NOAUA! Hilabete da Zubietako alkate berri egin zarenetik. Zeintzuk dira legegintzaldian eman beharreko urrats nagusiak?

Jon Arroyo: Kultur Etxearen gaia atera da parte-hartze prozesu guztietan, eta orain adostasun batera iritsi gara. Ez diogu Kultur Etxe deituko. Erabilera anitzeko gunea edo etxea izango da, eta horri heldu behar diogu orain. Oso korapilatsua da, lehenengo Herri Batzarrek bide bat hartu zuen, eta orain aurrera jarraitzeko herriaren hitza entzun nahi dugu. Herriari hitza eman nahi diogu erabakiak hartzeko.

Lehenengo gauza kokapena erabakitzea da. Bi aukera daukagu kokapena zehazteko: Almandegi hartzea, edo atzeraxeago dauden zelaia aprobetxatzea proiekturako. Bere egunean proiektuaren ideia plazaratzean hor zeukan kokapena Kultur Etxeak. Gaur egun egoera asko aldatu da, eta Zubietan handitu egin da. Beharrak ere desberdinak dira. Diruaren ikuspuntutik



Jon Arroyok Haritz Arrizabalagaren lekukoa hartu du Zubietako Herri Batzarrean.

JON ARROYO

Erabilera anitzeko gela, Kultur Etxearen parekoa izango den gunea. “Horri heldu behar diogu orain”, adierazi digu Jon Arroyok. Kokapena zehaztu behar da lehenbizi. Bi aukera daude: Almandegi bertan egitea edo atzekaldean dauden zelaia baliatzea. “Herriari hitza eman nahi diogu erabakiak hartzeko”

ere, gauzak dauden bezala daude. Ikerketa sakon bat egin

nahi dugu lehendabizi herriak eraikin horri zer eskatzen dion jakiteko. Behin hori erabakita, teknikariekin elkarlanean hasi izango litzateke hurrengo urratsa. Ea eraikin honek balio ongarria daukan edo eraikuntza berria eskatzen duen. Lur eta eraikuntza partikularrez ari gara hizketan, gainera. Herriak eskatzen duen erabilera funtzioa honek ez badu betetzen, hemen ezinezkoa baldin bada, beste modu batera bideratu beharko dugu proiektua.

Usurbilgo Udalarekin parte-hartze prozesuak egin izan dituzue, ezta?

Aurretik ere guk egin genuen parte-hartze prozesua pixka bat herriaren beharrak eza-gutzeko, baina urtero pil-pilean daukagun gaia da. Gai garrantzitsuenetakoa izango da legegintza, eta irailetik aurrera horri heldu nahi diogu. Usurbil eta Donostiako Udalekin harremanetan jarri gara proiektua bideratzeko, eta pixkanaka martxa hartzen ari gara. Egin diren parte-hartze prozesuetara herritar ugari animatu dira, eta aurrera egiteko ere beren beharra izango dugu. Alde horretatik gustura gaude, jendearen erantzuna oso ona izan da beti.

Helburuen artean, mendi bideak berriro markatu eta irekitzea

NOAUA! Mendi bideen garbiketa ere iragarri zenuten duela hilabete baino gehiago. Zertan dira gauzak?

Jon Arroyo: Horrekin gaude. Beti erantzunaren zain, batik bat Donostiaren al-

detik, haien erantzuna beti mantsoagoa izaten da. Hasi nahi genuen tokia Usurbil zelakoan, dena hitza egin da geneukan lanean hasteko eta azkenean, Donostiarenak dira bide horiek. Artzabaleta-

tik bide gorria egindako gune hori ezkerretara utzi eta aurrera jarraituta, Arkaitzerrekarekin paraleloan bidea moztuta dago erabat. Lertxunditik gora Santiago bidea dago, eta hori nahiko garbi dago, baina goi-

ko zonaldea da pixka bat garbitu beharrekoa. Garbiketa lanak auzolanean egiteko asmoa daukagu; zirkuito moduko bat. Bideak berri ere markatu eta irekitzea da helburua.

“Zubietako bideetako puntu beltzak eta bidegurutze txarrak identifikatu ditugu”

NOAUA! Haritz Arrizabalaga izan da azken bi urteetan alkatere, baina zu ere Herri Batzarrean lanean aritu zara berarekin. Zer-nolako balorazioa egiten duzu?

Jon Arroyo: Gainontzeko lege-gintzaldietan beti izan da kideren bat errepikatu duena. Beraz, Herri Batzarren martxa hartutakoren bat edo beste beti izaten da. Orain berriz, bostok berriak gara. Beraz, pixkanaka martxa hartzen hasi ginen, Covid-19aren ondorioz, geldialdi luzea egitea tokatu zitzaigun. Gainontzekoan, elkarlana oso positiboa izan da, eta boston artean gustura aritu gara lanean. Lehendik aski ezagunak ginen denok, eta horrek ere laguntzen du.

Zein lan nagusi egin dituzue bi urte hauetan?

Parte-hartze prozesuetan proposatu diren artean, Zubietako bideen puntu beltzak edo bidegurutze txarrak identi-



Herri Batzarreko bost kideak gustura ari dira lanean. “Lehendik aski ezagunak ginen denok, eta horrek ere laguntzen du”, adierazi digu Arroyok.

JON ARROYO

“Aliriko zubia puntu beltz bat da. Semaforo bat jartzea proposatu genuen, baina ezezkoa eman ziguten bi udalek”

katu ditugu. Bihurgune baten alboan zebrabidea daukagu, eta arriskutsu gerta daiteke zenbaitetan. Usurbilen badago zebrabidea 90 graduko kurba

egiten duen lekuan, eta gure asmoa ere bide horretatik jarraitzea litzateke. Proposamena luzatu genien Usurbil eta Donostiako Udalei, eta Usurbilgoak baiezkua eman badigu ere, Donostiakoak ezetz esan digu. Usurbilgo diru-laguntza batez egiteko asmoa geneukan, baina Donostiako eremua da. Donostiako modalitateko teknikariarekin berehala geratu gara, baina eman dizkigun konponbideak ez zaizkigu ge-

hiegi gustatu.

Beste puntu beltza, jendearen kezka nagusia dena, Aliriko zubiarena da. Estua da, eta ez dira bi auto kabitzen aurkako noranzkoetan. Egunean ordu puntualak dira arazo iturri, batez ere, Lanbide Eskolara joateko ordutegiak. Semaforo bat jartzea proposatu genuen, baina ezezkoa eman ziguten bi udalek. Stopak jarri zituzten azkenean, baina arazoak berbera izaten jarraitzen du. Muturra lehenengo sartzen duenak aurrera egiten du, eta bestaldekoak itxaron egin behar. Zerbait mantsoago pasatzen da jendea, hori nabaritu da. Oinezkoentzako bidea markatuta dago, eta segurtasuna ematen du horrek. Hor kalte-tuak edo izan direnak autoeskolako ikasleak dira, bidea ikasita zutela orain stop berriak non dauden eta zer egin behar duten ikasi behar baitute. Batek baino gehiagok ez omen du azterketa gaititu.

“Kultur Etxearen kontua luzatu egingo da, hamar bat urtez gutxienez”

NOAUA! Eguneroko martxan, nolako harremana duzue Usurbil eta Donostiako Udalekin?

Jon Arroyo: Usurbilekin askoz errazagoa, Usurbilera deitu eta egun berean edo hurrengo egunean lortzen dugu bilera bat. Donostiarekin asko kostatzen da. Udaletxea handiagoa da, eta egutegia ere beteago daukate. Lan horiek egiteko Inaxio Usarralde daukagu. Aurreko legebiltzarrean lortu zuten hitzarmenena laguntzaile bat edukitzeko Herri Batzarrek eta horrek

lana errazten digu; ez dago egunero deika ibili beharrik. Ordu batzuk ditu gurekin harremantzeko, eta horrek asko errazten digu, baina motel joaten da prozesua, hala ere. Aurreko hilean izan genuen jarraipen batzordearen bilera gauzak nola dauden zehazteko. Badirudi orain konpromiso batzuk gehiago hartzen hasi direla, baten batek estutu di-tuelako, eta teknikaria Zubietara hurbiltzekoa da.

Orain arte pandemia dela eta ez dela, elkartzeko beti arazoak jartzen zizkiguten. Bilera

bat eskatu eta adostasun batera iristeko ere beti arazoak. Irailean martxan jartzeko orain uztailerako bilera egingo dugu Kultur Etxearen kontu horrekin abiatzeko, mendi bideen garbiketarena ere zehaztu... Azken horiek oporrak hartu aurretik egin nahi genituen, baina ez da posible izango.

Kultur Etxearen kontua luzatu egingo da, eta prozesu luzea izango da: behin teknikarien prozesura iristean are eta gehiago luzatuko da dena. Hamar bat urte luzatuko da, gutxienez.

Prozesu guztietan, herriaren parte-hartzean egongo da giltza, ezta?

Herriaren iritzia guretzat oso garrantzitsua da edozein erabaki hartzeko garaian, eta horretan jarrai dezatela aurrerantzean ere.

Herri Batzarreko talde osoari eskerrak eman nahiko nizkioke, Haritz orain arte egin duen lanagatik, bai eta Urtzi, Iñaki eta Enekor ere. Inaxioren lana ere eskertzekoa da, eta beti esaten diogu seigarren Herri Batzarkidea dela guretzat.

Ekainaren 19tik erabat aske, Usurbilgo azken presoak

Ekainaren 19an Usurbil errepresaliaturik gabeko udalerrian bilakatu zen. 2018tik aske behar zuten arren, egun horretan amaitu zuten guztiz ezarri zitzaizen kondena, Olatz Lasagabasterrek eta Patxi Urangak. Urteotako hainbat une partekatu dituzte lerrootan NOAUA!-rekin.

NOAUA! Ekainaren 19an bete zenuten ezarri zitzaizuen kondena osorik. 2018tik ordea kalean behar zenuten. Zer nolako esanahia izan du egun horrek zuengan?

Olatz Lasagabaster: Oso garbi izan dugu hasieratik 2021eko ekainaren 19a zela espetxetik irteteko eguna. Ezustekoa iazko azaroan ateratzea izan zen. Ordura arte pultserekin eta hirugarren graduaren egon gara, muga batzuk bagenituen eta muga horiek amaitu dira orain.

Patxi Uranga: Kontraesan moduko bat sortzen da. Gu etxean gaude. Baina kideak oraindik hain urruti.

Olatz Lasagabaster: Barruan zaudenean kide bat aske ateradenean poz handia hartzen da. Baina zu ateratu eta barruan uzten dituzunean oso gogorra da.

Nolakoa izan zen herrira itzulerak?

P.U.: Ez dezala inork gaizki ulertu baina pandemia honek



“Bizimoduan izandako aldaketa nabari dut gehiago. Jendea gehiago dabil berera, bakoitza bere burbuilan sartuta”, adierazi diote NOAUA!ri, ekainaren 19tik aske diren Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga herritarrek.

OLATZ LASAGABASTER

“Aranjuezko zuzendaritza ez zen guri ezer ematearen aldekoa eta ezustean harrapatu zituzten”

lur hartzea leundu digu.

O.L.: Azaroan barruan geundela zazpi hilabete genituen kalera aterako ginela mentalizatzen

joateko. Baina bapatean kalera ginen. Aranjuezko espetxeko zuzendaritza ez zen guri ezer ematearen aldekoa eta beraiek ere ezustean harrapatu zituzten. Lehen egunetan “martzia-na” baten moduan sentitzen nintzen hemen.

Nola aurkitu duzue herria?

O.L.: Aldatuta. Baina hori NOAUA! nahiz etxekoen bidez irudikatzen joan gara. Bizimo-

duan izandako aldaketa nabari dut gehiago. Jendea gehiago dabil berera, bakoitza bere burbuilan sartuta.

P.U.: 2009an atxilotu gintuztenean Internet jada gure bizimoduaren parte zen. Baina inpresioa dugu egun gu gara Interneten parte. 12 urteotan eman den garapena ikaragarria da. Kontuan izan gu telefono kabinan eta gutunen bidez komunikatzetik gatozela.

“Herriak besoak zabalik hartu gaitu”

Bestelako aldaketa bortitzik sumatu duzue?

P.U.: Aldaketa politikoa, mobilizatzeko moduak. Duela 10 urte kartelak pegatzen ziren, orain sare sozialetan dago jokalekua.

O.L.: Ez dugu sare sozialik.

Niri momentuz oso arrotza egiten zait.

Herriak nola hartu zaituzte?

O.L.: Herriak besoak zabalik hartu gaitu eta sentitu dugun goxotasun eta babesak asko lagundu digu. Hitzak falta

zaizkigu herriaren jarrera eskertzeko. Barruan geundela sentitzen genuen babes eta elkartasun hori eta ateragarenean babes handia sentitu dugu kalean topatu dugun jendearekin, Xuaren kanpainako ixa horiek denda eta etxeetan

ikusita, nola egon den jendea hor inplikaturatuta... Nola eskertu hori dena? Ezin da.

P.U.: Oriokoa izanik, Usurbilen sentitu dudana babesa edozein sentsibilitateko herritarren aldetik, txapela kentzeko modukoa da.

“Xua jaiotakoan, zaurgarri bilakatu ginen”

NOAUA! Presoen eskubide urraketekiko sentsibilizazio maila aldatu da urteotan?

Olatz Lasagabaster: Perspektiba asko aldatzen da. Eskubide urraketak denak dira onartezinak beti. Preso dagoenak ez ditu onartzen, baina barneratu egiten ditu, indarra behar da eta egunerokoari aurre egiteko. Kaletik hori guztia beste inportentzia batekin bizi da.

Bereizketa, oso lotua dago zuen espetxe barruko ibilbideari. Zer sortzen dizue hitz hau entzuteak?

O.L.: Ia bost urte izan ginen elkarrengandik banatuta espetxe desberdinetan. Xuarena bai, bereizketa oso gogorra izan zen. Hiru urtez 24 orduz egunero elkarrekin egotetik, hilean behin ikustera, eta pandemia iritsita hori ere ez. 10 hilabeteetan ikusi gabe, komunikazioak gure artean erabat etenda, ezin elkar ikusi... Xua gaizki ikusten genuen, gu ere animikoki geroz eta okerrago. Barruan jarraitu izan bagenu Xua ikusi gabe segiko genuen. Niretzat espetxea kartzelago



“Eskubide urraketak denak dira onartezinak beti. Preso dagoenak ez ditu onartzen, baina barneratu egiten ditu”.

OLATZ LASAGABASTER

“Barruan jarraitu izan bagenu, Xua ikusi gabe segiko genuen”

izan da ama izanda.

P.U.: Xua jaio zenean, espetxearen aurrean zaurgarri bilakatu ginen, bazegoen halako kontuz ibili behar bat.

O.L.: Picassenten behartuak gi-

nen Xua haurtzaindegira eramatea, bestela umea kentzeko arriskua genuen.

Xua zuengandik bereizi zezaketen une hartarako nola prestatu zineten?

O.L.: Jaio zen unetik, etxekoe-kin lotura indartzen hasten zara, bere bizitzaren parte izango direla adierazten, berarekin seguru eta lasai egongo

dela helarazten. Zazpi hilabete-terekin kalera ateratzen hasi zen. Gerora Euskal Herrira etortzen, herria eta Haur Eskola ezagutzen hasteko. Hasieratik hasten zara esaten haurrari hiru urterekin amonarekin bizitzera etorriko dela Usurbila, ezingo garela berarekin etorri, nahiz eta jabetzen zaren haustura hori etorriko dela eta horrek zer suposatuko dion.

“Komunitatearen babesak salbatu gaitu gu”

NOAUA! Nola bizi izan zenuen “Xua Gurasoekin Etxera” plataformaren bueltan sortu zen mugimendua?

O.L.: Banaketa egongo zela barneratua genuen baina une gogor horietan jendea kalean egin ahalak egiten ikustea, babes hori sentitzea eskertzekoa, hunkigarria eta oso polita izan da. Ikustea Xua ateratzerako sare erraldoi bat egongo zela babesa eta maitasuna emango ziona, oso lasaigarria izan zen. Oso eroso eta lasai sentitzen zen herrian. Usurbil berarekin zegoela ikusten genuen.

P.U.: Herritarren jokabidea

txalotzekoa izan da. Errespetu osoz, sentsibilitate handiz tratatu da gaia.

Heltzen da beraz kanpoko babesa?

P.U.: Espetxea birringailu bat da. Jendea suntsitua ikusi dugu, ez zutelako babesik. Komunitatearen babesak salbatu gaitu gu.

O.L.: Espetxea ez dago inor laguntzeko, ez du ezertarako balio. Barrutik oso gertutik sentitzen da kanpoko guztia. Barruan egotearen oinarria kanpokoak dira. Han zaude, baina badakizu ez zaudela bakarrik.

Tantaka presoak hurbiltzen doaz. Etorkizunera begira itxaropentsu zaudete?

O.L.: Euskal Herrian orohar geroz eta barneratuagoa dago, presoie lege arrunta aplikatu behar zaiela, ez salbuespen politikak. Hala hasi dira egiten eta horrek bidea erraztuko du askorentzat. Baina lege aldaketa eskatzen den kontuetan, ez da hain erraza izango. Sakonagoak diren aldaketekin ez dakit zer gertatuko den. Baikorak izan behar dugu baina errealtak izanda.

P.U.: Usurbilgo azken presoak gara. Etorkizunean bat ere ez egotea espero dugu.

Udako mobilizazioak


Euskal presoen eskubideen aldeko ekimenek ez dute oporrik izango uda hone-tan. Uztaileko eta abuztuko azken ostiraletan elkarretaratzeak deitzen segiko du Sarek 20:00etan Mikel Laboa plazan. Larunbat honetan (uztailak 24), Sareren “Ibilian ibilian etxerako bidean” bizikleta martxako azken etapa, Zumaia-Donostia artekoak inguru hau zeharkatuko du goiz partean. Abuzturako hitzorduak; hilaren 1ean mobilizazioak hondartzetan eta manifestazioa Donostian.

DOMINOAN

Osa itzazu
lauki zuriak,
domino zati
honek zentzua
izan dezan.



Meloia, angurria,
muxika eta bi
izozki mota
marraztu
behar dituzu.



Siestan

Bederatzi irudi-zati hauetatik sei engainariak dira, hau da, ez daude irudi nagusitik hartuta, hala diruditen arren. Zeintzuk dira onak eta zeintzuk engainariak?




Uztaila eta abuztua (edo agorrila) urteko hilabeterik ederrenak dira batzuentzat, sasoi horretan ez delako eskola joan beharrik izaten. Bete itzazu bi sudokuak, lehena UZTAIL hitza osatzen duten hizkiak idatziz (U, Z, T, A, I eta L), eta bigarrena AGORRIL hitza osatzen duten hizki desberdinen bidez (A, G, O, RR, I eta L). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

U	I			T	Z
		Z			U
	L				T
A		T		L	I
	A		T		
	U			Z	

		G		RR	
RR	A		O		
I			G		RR
L					O
	L			I	A
	RR		L		G

Sudoku




Ai ene! Tranpolinera igo eta irrist egin du gizajoak! Zein da bere itzal zuzena?

Itzala



Hamaitakoa



Aurki itzazu bi irudion artean dauden 11 aldeak.



Ordna itzazu arrain harrigarri hauek handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanez, eta txikienari 6.

Handitik txikira



ALFABETOA

Mezua

Eman marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta esaera polit bat agertuko zaizu.



Buruntzaldean ere autobus zerbitzu duinak izateko sinadura bilketa abiarazi dute

Ezabatu duten ospitaleetako autobus zerbitzua berreskuratu eta oro har, eskualdeko bus zerbitzuaren egoeraz aritzeko hainbat herritar eta udal ordezkari bildu ziren uztailearen 15ean Sutegi atarian.

Kezka eta haserrea eragin dute eta, Buruntzaldeko autobus zerbitzuetan izan diren murrizketek. Gogoan izan, uztailearen 1az geroztik martxan da eskualdeko esleipen berria. Usurbili dagokionez, ospitaleetara joateko genuen zerbitzua guztiz ezabatu dute. Hernanira doanari eutsi diote azkenean, eta zenbait orduetan zerbitzua indartu du baita Gipuzkoako Foru Aldundiak. Gogoan izan, esleipen prozesua abiatu zutenean, linea hau ere kentzea aurreikusten zuten.

Oinarrizko zerbitzua

Murrizketon aurrean, kexa ugari jaso ditu Usurbilgo Udalak azken asteotan. Horren harira bilera irekia deitu zuen iragan ostegunean Sutegi atarian. Herritar talde bat mobilizatzen hasia da; bere kontutik, herriko hainbat establezimenduetan jarritako orrietan, lau egunetan soilik 800 sinadura baino gehiago bildu dituzte ospitaleetako autobus zerbitzua ezabatzearen aurka. Gogora dezagun, zerbitzu hau osasun eremu horretara lanera joaten



Uztailearen 15ean, Usurbilgo Udalak deituta, Buruntzaldea zeharkatzen duten autobus zerbitzuei buruz Sutegi atarian egin zuten bilera irekia.

BURUNTZALDEKO BUSAK

“Lanera edo zaintza lanetara doazen emakumeak dira murrizketa hauen pairatzaileak”, gogorarazi dute udal gobernu taldeak.

diren hainbat herritarrek, edota probak egin nahiz gaixo duten norbait zaintzera doazenean erabiltzen dute.

Udal gobernu taldeak Sutegi atariko hilaren 15eko bileran zioten moduan, “guretzako ez da edozein linea, izaera soziala duen zerbitzua da”. Guztiz oinarritzakoa. Eta sarritan gertatu ohi den moduan, sektore zaurgarrienak dira kaltetuak. Kasu honetan, “lanera edo zaintza lanetara doazen emakumeak dira murrizketa hauen pairatzaileak”, udal gobernu taldeak gogorarazi zuten.

Halako autobus zerbitzu batean egokitzapenak egitea erabakitzerakoan, halako erabakibat “ezin da irizpide ekonomizista batean oinarritu”, gaineratu zuten, herritarren kezka eta haserrea partekatzearekin batera. Haserrea gainera ez da udalerrri mailakoa, “eskualde osoa” baizik. Sutegiko bilera irekian esanguratsutzat jo zituzten murrizketak aplikatu dira eskualde ia osoan.

Irailean “berrezartzekotan”

Egoera aldatu litekeela ere adierazi zuten, nahiz adi jarraitzeko beharra ikusten duten. Sutegiko bilera irekia baino ordu batzuk lehenago, eskualdeko udal ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundikoekin bildu ziren. Bilera haren zenbait xehetasun eskaini zituen udal gobernu taldeak, kultur etxe atarian. Diputa-

zioak ospitaleetako linea berrezartzeko borondatea agertu du antza irailetik aurrera. Ordura arte itxaron gabe, udan ere beharrezko zerbitzua dela agertu diote eskualdeko udal ordezkariak, baina jaso duten erantzuna horixe duzue; ospitaleetako linea irailetik aurrera berriz martxan jartzeko borondatea agertu duela Foru Aldundiak.

Antolaketa ezberdina

Kezka dute udal gobernu taldeak, borondate hori nola gauzatu duten uda ostean. Antza ez da lehen bezala eskainiko. “Ordutegiaren arabera antolaketa ezberdina” sustatzekotan da Aldundia edota, “beharren arabera funtzionatzea”. Edozein moldaketa egin aurretik, proposamena idatziz udalei helarazteko asmoa agertu dute Diputazioetik.

Egunotan sortu diren atzerapenak antza lehenago, aste honetatik aurrera konponduta egongo direla ere ziurtatu zaie eskualdeko udal ordezkariak Foru Aldunditik. Baina aipatu moduan, ez da aski egun eskualdeak garraio zerbitzuekin dituen gabeziak estaltzeko; “egoera prekarioa da”, nabarmentzen dute udal gobernu taldeak. Ospitaleetako linea kentzearekin batera, gertatzen ari diren atzerapenez gain, eskualdeko hainbat herrirekin loturirik ez du Usurbilek.

Sinadura bilketa eta mozioa

Gipuzkoako Foru Aldundiak uztailearen 1ean indarrean jarritako murrizketen aurrean gainera informazio falta nabaria egon dela ere agerian jarri zuten Sutegiko bileran. Udalei ere ez zaiela ezer ja-

kinarazi adierazi zuten udal gobernu taldeak.

Egoera honen aurrean, herritar talde batek abian jarritako sinadura bilketa lagundu asmo du Usurbilgo Udalak. Ospitaleetako linea berrezartzea es-

katzeko atxikimendua emateko aukera izango da udal azpiegiturotan; udaletxean bertan, Sutegin, Oiardo Kiroldegian eta Potxoenean.

Sinadura bilketarekin batera, mozioa erregistratu dute udale-

txean. Astearte honetako, uztailearen 20ko udalbatzarrean bozkatzekoak ziren. Aurretik ere eragiten segitu beharra azpimarratu zuten udal gobernu taldeak. “Herri bezala eragiten digu” eta.

TicketBAI, bai ala bai

Tiket bidezko salmentan aldaketa handiak datoz. Nahitaez ezarri behar direnak, gainera. Europar Batasunetik datorren irizpidea da, eta Euskadin Foru Ogasunak ari dira aldaketa bideratzen. 2022an hasita derrigorrezkoa izango da.

Eskuko telefonoak eta ordenagailuak eguneratu egin behar izaten dira, tarteka. Eta, beharrezkoa denean, aplikazio eta sistema berriena eskaintzen duen aparailu osoa berritzen da. Logika bera hori aplikatu behar da fakturazioari eta tiket sistemari dagokionez, 2022rako aldaketa handia datorrelako. Iraultza izango da tiket bidezko saltzaileentzat. Eta, ogasun erakundeak tarteko egonik, sistema berri horren erabilera derrigorrezkoa izango da.

Aldaketa handiak datoz. Izan okindegia, taberna, dena, fisio zentroa, garraiolaria edo liburu-saltzailea. Jarduera ekonomiko guzti-guztiei eragingo die sistema berriak. Ez da salbuespenik egingo, eta nahitaezkoa izango da.

2022an sartuko da indarrean

Europar Batasunetik datorren agindua da, eta Gipuzkoan



Sistema berri horren erabilera derrigorrezkoa izango da 2022an.

2022AN

“Dendari, tabernari, fisio, iturgin... Guztiak sistema berrian lan egiteko egokitzapenak egin beharko dituzte”

Foru Ogasuna eta Eusko Jaur-larritza dira egitasmo honen sustatzaileak. TicketBAI izena du egitasmoak, eta hilabete gutxiren bueltan denon ahotan izango da. 2022ko urtarri-lean aholkularitza-enpresetan eta gestorian ezarriko da. Martxoaren 1ean profesionalen txanda izango da, eta maiatzaren 1ean merkataria eta ostalaria. Urrian, bestalde, garraiolariak, higiezin enpresak eta abenduan fabrikazioari loturikoak.

Gestoriekin lanean ari diren dendariak eta enpresak jakina-

ren gainean badaude ere, oro har, norberarekin ez doan kontua dela dirudi. Baina 2022ko martxoan segituan iritsiko da. Eta bapatean negozio guztiak internet eta software egokitzapenak egin, sinadura elektronikoa ezarri eta TicketBAI sistema berria barneratu, erabili eta eguneroko zereginetan txertatu beharko dute.

Helburua, iruzur fiskala saihestea

Salmenta eragiketa guztien aitorpena egitea, horixe da egitasmo honen atzean dagoen xede nagusia. Eta asmo horren atzean helburua bikoitza da: zergadunei betebeharrak errazteko baliabideak jartzea eta iruzur fiskala saihestea. Euskadiko Foru Ogasunak asmo hori eufemismorik gabe azaldu dute: “instituzioak be-

ren laneko sistema eta prozedurak etengabe hobetu eta modernizatzeko prozesu batean murgildurik daude, zergadunei beren betebeharrak betetzea ahalik eta gehien errazte aldera eta, aldi berean, iruzur fiskalaren aurkako borrokan eraginkortasuna eta efizientzia areagotzeko”.

On-line bidezko aukerak biderkatu eta hobetu egin dira, urteotan. Europak aurrera egitako erabaki irmoa hartu du, egungo egoera teknologikoak une honetan ezartzeko aukera ematen duelako. Argudioa behin eta berriro errepikatzen dute: “zergadunari erraztasunak ematea eta zerga arloko kontrola hobetzea”.

Egokitzeko garaia

Dendaria, tabernaria, fisioa edo liburu-saltzailea. Guztiak sistema berrian lan egiteko egokitzapenak egin beharko dituzte. Jarduera ekonomikorako tiket edo faktura sistema erabiltzen duen edonor, beraz. Aldundia- ren ahotan: “Proiektuak eragingo dio ekonomia-jarduerak garatzen dituzten eta PFEZ-IRPFan edo sozietateen gaineko zergan Euskadiko Foru Ogasunen araudiaren baitan dauden pertsona eta entitate guztiei”.

Nolakoa izango da tiket/faktura berria?

Hasteko eta behin, Internet konexioa beharko da, eta segidan Interneta eta fakturazioa bermatzeko aukera duen gailu elektronikoa (eskuko telefonoa, tableta, balantza aurretatu eta ordenagailua, aukera askoren artean). Honi lotuta, fakturaziorako softwarea edo programa egokia beharko da. Segidan, TicketBAI sistema berriarekin salerosketa lau urratsetan emango da:

■ Saltzaileak erosketa bako-

itzeko fitxategi bat sortuko du, horretarako gaituta dagoen programa edo softwarea erabiltuta. Fitxategi bakoitza TicketBAI fitxategia izango da.

■ TicketBAI fitxategia elektronikoki sinatu beharko da. Egungo sinadura elektronikoren aldaera berria da, baina behin konfiguratuta sistema eragileak sinadura hori automatikoki egingo du.

■ Bezeroarentzat eta administrazioarentzat baliagarria den faktura sortuko da, formatu

fisikoan zein elektronikoa. Besteak beste, faktura horretan identifikatzaile bat eta QR kode bat agertuko dira. Salerosketaren arrastoa jarraitzeko baliagarria izango da, edozein produktuk duen barra-kodearen parekoa.

■ Faktura hori sortzean, zuzenean jasoko du Gipuzkoako Foru Ogasunak. Ezarpen-egunetik aurrera igorritako faktura guztietan aplikatu beharko da sistema berria. Ez da modu atzeraeraginean aplikatuko.

Berria den egitasmoekin gertatzen den bezala, probatzen hasi aurretik korapilatsua dirudi. Baina behin martxan dagoela, egitasmoa automatikoki egingo da. 2021ean zehar borondatezko epealdia zabaldu-ta dago, eta 2022an hasita nahitaezkoa izango da. Jarduera ekonomikoetako profesional askok harremana dute gestoria eta kontu-hartzailetzan espezializaturiko zerbitzuekin. Informazio egokiaren bila hasi beharko da, hilabeteotan.

Daniel Scott: “Euskal kulturak eraman nau nire erroak aurkitzera, eta hori da politena niretzat”

Urteak daramatza Daniel Scott argentinarrak Usurbilen. Euskara ikasten ari zela bertsolaritzak erakarri zuen, eta bertso-paperrak idazteak Argentinako bere erroekin topo egitera eraman zuen. Argentinako koplak eta payadak ere inprobisazioan oinarritutako diziplinak izanik, lehen liburu bat idatzi zuen duela bi urte hiru diziplinak batuz. Orain, berriz, laugarren diziplina bat gehituta, bigarren liburua kaleratu du. Rapa gehitu dio liburuari, *Bertsopayakopla + rap* liburuan.



“Duela urtebete hasi nintzen rapa idazten, eta asko gustatzen zaidan diziplina da”.

NOAUA! Bertsopayakopla + rap lan berria kaleratu duzu. Aurkeko Bertsopayakopla lanaren jarraipen modura ulertzen duzu?

Daniel Scott: Bai, hau bigarren liburua da. Lehenengo proiektua duela pare bat urte egin nuen, eta hasieran bertso-paperrak baino ez nituen idatzi euskaraz, eta gaztelaniaz koplak eta payadak. Kopla eta payadak Argentinako metrika batekin idatzi nituen. Hemen go bertsolariak Argentinan koplero eta payadalariek dira, eta haiek erabiltzen dituzten metrikak erabiltzea erabaki nuen. Bigarren liburu honetan, berriz, berrikuntza rapa da. Bai euskaraz, bai gaztelaniaz rapa sortzera animatu naiz. Duela urtebete hasi nintzen rapa

DANIEL SCOTT
“Bigarren liburu honetan rapa da berrikuntza. Bai euskaraz, bai gaztelaniaz rapa sortzera animatu naiz”

idazten, eta asko gustatzen zaidan diziplina da.

Zerk erakartzen zaitu inprobisaziotik?

Lau diziplinak oso lotuta daude ezaugarri nagusi batekin, inprobisazioarekin. Argentinan, Euskal Herrian eta munduko beste hainbat lekutan rapa egiten da, eta beti erakarri

izan naute diziplina horiek. Euskal Herrian bertso eskolan hasi nintzen duela lau zapabost urte. Alegian eman nituen lehen urrats haiek, Tolosan bizi bainintzen garai hartan. Bertsolarien arteak liluratu egiten nau, eta horrek bultzatu ninduen Argentinako kulturara ere. Idatziz hasi nintzen, izan ere, oraindik euskaraz inprobisatzea oso zaila da niretzat. Koplatxo txiki batzuk egin nituen Bertso Eskolan laguntarekin, bertso-paperean. Astero, normalean bertso-paper bat prestatzen nuen etxean, gero Bertso Eskolan geratzen ginean abesteko. Urtebetez horrela aritu nintzen, eta orduan,

ohitura hartu nuen gisa honetako lanak idazteko. Behin euskaraz bertsoak idazten hasita, gaztelerari ere heldu nion. Lehenago ez nuen gazteleraz horrelakorik idatzi. Blogak eta gogoetak idatz nitzakeen, baina hortik aurrera ezer gutxi. Bertso Eskolak idaztera bultzatu ninduen.

Bertsolaritzak lotu zaitu zure jatorrizko erroekin, eta koplazein payadarekin?

Bai. Euskal kulturak eraman nau nire erroak aurkitzera, eta hori da politena niretzat. Errekuperatu eta landu egin dut orduetik, lehenago sekula egin ez nuen zerbaitekin, gainera.

“Argentinan, rapa ari da payaden lekua hartzen”

NOAUA! Nola definituko zenuke payada?

Daniel Scott: Payada Argentinako arte popular bat da. Normalean, gautxoek kulturaren lantzen da; baserriarrek kultura bezala da. Nahasketa batetik sortutako kultura da, indio aborigenen eta Europako krioiloen nahasketatik sortu-

takoa da. Gautxoek kultura landa-eremuarekin zuzenean lotuta dago, eta hortik sortu ziren payadak. Gitarra bat joaz inprobisatuz egiten den lanketa bat da. Kontrapuntua ere egiten da Argentinan. Oso zabaldua egon izan da urte luzeetan diziplina hau, baina orain gazteen artean galtzen

ari den artea da. Rapa ari da payaden lekua hartzen, freestyle horretan.

Martin Fierro liburua da, Argentinan benetan ezaguna den liburua, Espainian On Kixoteren pare egon daitekeena, eta dena payadez osatuta dago. Argentinan oso arte ezaguna eta garrantzi-

tsua da.

Payada horiek plazetan abesten dira, hemen bertsoekin egiten dugun moduan?

Antolatzen dituzte erakustaldiak festetan. Saioak egiten dituzte jendarean, eta intimitatean ere lantzen den diziplina da.

“Bertso Eskolan ikasitakoarekin ekin nion nire lanak prestatzeari”

NOAUA! Nolakoa izan da zure azken lanaren sormen prozesua?

Daniel Scott: Bertso Eskolan ikasitakoarekin ekin nion nire lanak prestatzeari. Rapa, berri, modu autodidakta batean ikasi nuen, Interneten bideoak ikusita, batez ere. Oraindik ere ikasten ari naiz. Oso modu ederra da barneko sentimenduak eta usteak azaleratzeko.

Lau diziplina lantzen dituzu liburuan. Zein da horietatik zure gustokoena?

Nire gustokoena gaztelaniaz koplak da. Rapa ere indar handia hartzen ari da, erabat liluratuta nauka. Koplak oso interesgarria da, Argentinako iparraldean koplerak dira, eta danbor batekin egiten dute inprobisazio lana, kontrapuntuan. Abesti popularrak ere lantzen dituzte. Niretzat errazagoa da koplak egitea danbor batekin sortzen delako; payadak gitarrarekin egiten dira, eta nik ez dakit gitarra jotzen, beraz, zailtasun handiak ditu niretzat payadak lantzeak. Metrika oso sinplea da koplarena, bertsoaren antzekoa. Euskarazko diziplina



“Liburua idatzi nuen niretzat, eta nire lagunekin partekatzeke, eta gerora zabaltzea erabaki nuen”, adierazi digu Daniel Scottek.

DANIEL SCOTT

“Euskarazko diziplina gustokoena aukeratu beharko banu, bertsolaritza, dudarik gabe”

gustokoena aukeratu beharko banu, bertsolaritza, dudarik gabe.

Bertsoak eta rapak ere badute zerikusirik.

Rapak askatasun gehiago dauka metrikari, bertsoa, al-diz, zurrunagoa da eta doinuak

emanda etortzen da. Politak da biak lantzea. Lanketa ezberdina da, baina erakargarriak egiten zaizkit biak.

Etorkizunean gustatuko litzazuke soilik rapa lantzea liburu batean?

Ez dakit. Orain dela lau urte esan izan bazenit liburu bat, eta are gehiago, bi idatziko nituela, ez nizukeen sinetsiko. Prozesua oso modu naturalean sortu zen. Liburua idatzi nuen niretzat, eta nire lagunekin partekatzeke, eta gerora zabaltzea erabaki nuen. Dena egiten zait berria arlo hauetan.

“Herriz herri ibiltzen naiz dendetan liburuak uzten”

NOAUA! Non eskura daiteke liburuak?

Daniel Scott:

Herriz herri ibiltzen naiz dendetan liburuak

uzten. Lauroken utziko ditut kopia batzuk, lehen liburuarekin egin nuen bezala. Liburutegian ere utziko dut liburu bat nahi duenak irakurtzeko.



Lehen liburuak arrakastatsua izan zen?

Bai, jainkoari esker bai. Zorritzarekin, egun liburu gutxi saltzen dira. Herriz herri dendetan liburu batzuk utzeko proposamenak egiten joaten naiz, eta harrigarria egiten bazait ere, uste baino gehiago saldu nituen. Gipuzkoan ekin nion salmenta lanari: Hernanin, Usurbilen, Beasainen... Eta gero, Bizkaian ere ale batzuk utzi nituen. Araban eta Nafarroan ere eskura daiteke herri batzuetan. Iparraldera oraindik ez naiz iritsi, osasun egoeragatik ezin naiteke bertaraino joan. Prozesu horrek lagundu dit herriak ezagutzen, eta euskararen egoera ere zein desberdina den ikusten herri batetik bestera. Interesgarria izan da esperientzia.

Interneten ere topa daiteke zure lana?

Webgune bat egin dut bertsoak, koplak, payadak eta rapak ikusi ahal izateko, euskaraz zein gaztelaniaz. Ondorengo helbide honetan: www.bertsopayakopla-rap.eus. Espero dut jendeari gustatuko zaiola. Niretzat terapia ona izan da barneko askatzeko, eta gainontzekoentzat ere ona bada, ezinhobe.

“Protestantismotik nator, baina ni Jesukristoren jarraitzailea baino ez naiz”

NOAUA! Jesus eta Jesukristo aipatzen dituzu hainbat piezetan.

Daniel Scott: Ez naiz katoliko erlijiosoa, ezta protestantea ere. Protestantismotik nator, baina ni Jesukristoren jarraitzailea baino ez naiz. Bizitzaren ibilbidean bidelagun dut Jesukristo, eta berak laguntzen dit prozesu horretan. Nire pertsonarik kuttunena dela esan dezaket, eta bizia

ematen didala. Mundu ikuskerari jakin bat jarraitzeko aukera ematen dit: nire ereduak da, eta jauna. Jauna dela esaten dut bere bizitza jarraitzen dudalako. Maitasuna eta barkamena zer diren erakutsi zidan, eta nire bizitzari zentzua ematen dio. Ez dut erlijio ikuspuntutik ulertzen prozesu hau, erlijioek ez dutelako askatasunik ematen. Elizak ere ez du salbatzen, baina Jesukristok bai, bera da

salbatzailea.

Inspirazio iturriak Modu alternatiboan bizi duzu kristautasuna, beraz.

Bai, hori da. Ni kristaua naiz, eta egunero biblia irakurtzen dut. Horrek asko laguntzen dit, eta ebanjelioak ikaragarriak dira niretzat. Idazterako garaian ere, niretzat inspirazio iturri nagusi dira ebanjelioak eta Jesusen bizitza.

Pardelak birziklatzearen aldeko sinadura bilketa

Pardelak birziklatzea eskatzeko gipuzkoarren sinadurak jasotzen ari da herriz herri Erraustegiaren Aurkako Mugimendua. Uztailaren 15ean Mikel Laboa plazan izan ziren, herrialde mailan abian duten kanpainaren baitan. Eskaera handitzen ari dela jakitun, Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak (GHK) pixohialak eta higie-ne-produktuak birziklatzeko zerbitzua abian jar dezala eskatzeko baliatuko dira atxikimenduok. 376 lagunena bildua zuten jada aste hasierarako. “Klimaren larrialdi-egoeran egonda, prozesuak bizkortu egin behar dira. GHK-k pixohialak eta higie-ne-produktuak birziklatzeko zerbitzua bere gain hartu beharko luke”.

Atxikimenduak sarean

“Osoigo.com” izeneko plata-



“Birziklatu” hitza osatu zuten pardelekin, iragan asteko sinadura bilketan.

SINADURA BILKETA SAREAN

“Osoigo.com izeneko plataformaren bidez ere sinatu dezakezue”

formaren bidez ere sinatu dezakezue. Atari hau baliatzen

ari da hain zuzen, Gipuzkoako Batzar Nagusiei honako galdera helarazteko: “Zergatik ez du Gipuzkoako Hondakinen Kontsurtzioak (GHK) pardelak birziklatzeko zerbitzuaren prozesua abiatzen?”. 500 atxikimendu biltzeko erronka finkatua du Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak.

“Habitat” erakusketa

Erakusketa berria uda honetan Artzabalen; 26 urteko arkitektoa eta ilustratzailea den Natxo Sanz Perezen “Habitat” izeneko. Eskuz, tintaz nahiz digitalki egindako marrazkien bilduma.

Kontzertua, Musika Hamabostaldian

Urtero moduan, Donostiako 82. Musika Hamabostaldiaren baitan, Gipuzkoako hainbat hainbat eliza zeharkatuko dituen 15 kontzertuz osaturiko organo zikloa antolatu dute. Emanaldietako bat, Craig Williamsena, abuztuaren 1ean 20:00etan Salvatore Elizan. “Dupré, Thayer, Hampton, Diemer, Widor... konpositoreen lanak” eskainiko ditu. Gonbidapena Musika Hamabostaldiaren Donostiako bulegoetan (Zurriola hiribidea 1, 20002 Donostia) eskuragarri. Informazio gehiagorako: 943 003 170/ quincenamusi-cal.eus.

Donostiako

Klasikoa, gurean

40 urte bete dituen nazioarteko kirol proba honetako parte hartzaileek udalerrri hau zeharkatuko dute uztailaren 31n. Donostiako Alderdi Ederretik 11:30etan abiatu eta bidean, 12:05 aldera helduko dira hiriburutik txirrindulariak, N-634 errepidetik. Usurbildik Aginagara joko dute gero eta handik Oriorantz. Herrialdeko kostalde zeharkatuko dute lehenik txirrindulariek, 6 mendate igo beharko dituzte. 17:30ak aldera iritsiko dira Bulebarreko helmugara.

Plazan Bazan, 14/15 orrialdeetako soluzioak

DOMINOAN

Oso itzazu lauki zurik, domino zati honek zentzua izan dezan.

Meloia, anguria, mukia eta bi izozki mela marraztu behar dituzu.

Siestan

Bederatzi inudi-zati hauek zein engainariak dira, hau da, ez daude inudi nagusirik hartuta, hala diruditen erren. Zeintzuk dira onak eta zeintzuk engainariak?

SUDOKU

Uztaila eta abuztua (ede agerrila) urteko hilebeterik ederrenak dira batzuentzat, sasoi horretan ez delako eskola joan beharrik izaten. Bete itzazu bi sudokuek, lehena UZTAIL hitza osatzen duten hizkiak idatziz (U, Z, T, A, I eta L), eta bigarrena AGORRI hitza osatzen duten hizkiak idatziz (A, G, O, R, R, I eta L). Gogoratu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lehen, zutabe eta ordea bakoitzeko.

U	I	A	L	T	Z
L	T	Z	I	U	A
I	L	Z	A	T	
A	Z	T	U	L	I
Z	A	L	T	I	U
T	U	I	A	Z	L

O	I	G	A	R	R	L
R	R	A	L	O	G	I
I	O	A	G	L	R	R
L	G	R	R	I	A	O
G	L	O	R	R	I	A
A	R	R	I	L	O	G

Al enei Transpolinero igo eta irrist egin du gizakiak Zein da bere itzal zuzena?

Itzala

Hamaikakoa

Aurki itzazu bi irudion artean dauden 11 aldeak.

Handitik txikiara

Ordina itzazu emain harriak hauek handitik txikiara, handienari 1 zenbakia emanaz, eta txikienera 6.

Mezua

Eman marrazki bakoitzari dagokion hizkia eta esan polit bat agertuko zaizu.

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udaletxe aurrean. 58m (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berriua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

2 logela edo gehiagoko etxe bat alokatu nahiko nuke. Usurbildarra naiz eta berehala sartzeko litzateke. 641562917.

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genduke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok

hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Pertsona helduak, garbiketak, peoi lanak edo pintore laguntzaile moduan aritzeko prest, gizonetako bat naiz. 622747833

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest, neska bat naiz. 622747833

Arratsetarako lan bila nabil. Euskalduna naiz, usurbildarra. Haurren zaintzan edo etxeko lanetan aritzeko prest. 61627 3785.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko. Titulu soziosanitarioekin. 612 433 485.

Neska orduka eskaintzen da etxeko lanetarako edo haurrak zaintzeko. 631 89 49 90.

Adinekoak zaintzeko lan bila nabil. Geriatria ikastaroa egin dut. Orduka nahiz egun osoz lan egiteko prest. 604 349 970.

Nikraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoen zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anisiez@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disonibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Orduko lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak eginen 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

BESTELAKOAK

Katakumeak opari. Bakarra geratzen zait, arra, 3 hilabete ditu. Gal-

detu Izar Etxen, Udarregi parean, edo deitu 635709267 (Iker).

Usurbilen klaseak ematen dituen irakasle batek ingelesa, frantsesa eta euskarazko klaseak emango litzuke udan, etxetara joanda. 600766068 (Jokin)

Lepoko marroldun txakurkume eme marroi bat aurkitu dugu Olarrondo kalean. 685473499

Herritar batek perikito bat topatu eta udaltzaintan utzi du. Telefonoz dei dezake (943 36 11 12) edo udaltzaintara joan, zuzenean, perikitoaren bila.

10 urteko mutil bati ortodontzia-aparatua galdu zaio herrian. Norbaitek aurkituko balu deitu dezala hona: 600 768 570.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patinetak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitetzke. Astelehenetik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbategi: 9:00-13:00.



10 urtez egon zara gure artean, bati muxu, besteari besarkada agurtzerakoan, zigilua eskuan edo/eta ipurdian, jada baduzu, Irantzu, tokitxo bat Sutegi Liburutegiraren historian; zorte on zure ibilbide berrian!

**Usurbilgo Sutegi
Udal Liburutegiko
lagunak**



Abuztuaren 10ean 4 urte beteko dituzu Haizea! Ze ondo pasako dugun egun horretan! Prestatu belarriak! Muxu asko familia guztiaren eta Xairen partez!

Heriotzak

Ana Esnaola

Etxabe

Uztailaren 19an hil zen
Santuenean, 48 urterekin.



Goardiako farmaziak

Osteguna 22	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Ostirala 23	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Larunbata 24	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Igandea 25	ORUE	Jaizkibel plaza 2. Lasarte
Astelehena 26	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Asteartea 27	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte
Asteazkena 28	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 29	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Ostirala 30	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola 9. Lasarte
Larunbata 31	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Igandea 01	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Patrimonia
Jatetxea
· bazkariak EGUNERO
· afariak, ostegunetik larunbatera
© 943 362725 · © 688 690 361

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

JUANTXO
BURDINDEGIA
Zubiaurrenea 8
© 943 370 008

ZENDOIA
ENEA taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Agenda uztaila

23 ostirala

24 larunbata

25 igandea

■ **Kultur ekintzak Zubietan:** 09:00 Mendi martxa. 16:00 Mus txapelketa. 23:30 La Rekba eta Perlata kontzertuan.

■ **Sareen bizikleta martxa.** Zumaia-Donostia etapa Usurbildik, "Ibilian ibilian, etxerako bidean" udako dinamikaren baitan.

■ **Kultur ekintzak Zubietan:** 10:30 Meza. 12:00 Sokadantza. 17:30 Herri kirol erakustaldia: H. Ezpeleta eta A. Mugerza aizkolariak; J. Ostolaza harri-jasotzailea. 20:00 Bertsolariak: A. Labaka, J. Martin, B. Lizaso, Mantxi. Gai-jartzailea: Zortzitan Bertso Eskola.

Aire Ahizpak taldearen kantaldia Mikel Laboa plazan

Miren, Amaia eta Paxkalin kantariak Xalbador bertsolariaren bilobak dira eta familia giroan ikasitako bertsoak eta kanta herrikoiak eskaintzen dituzte. Duela urte batzuk "Bidezka" diskoa plazaratu zuten Erroa argitaletxearekin. Mixel Labegerie, Eñaut Etxamendi, Mikel Laboa, Lourdes Iriondo, Xabier Lete eta Xalbadorren abestiak moldatu zituzten. Ostegunean emanaldia eskainiko dute 22:00etan Laboaren Uztailearen baitan. Izen ematea itxita dago.



Aire Ahizpak izango dira ostegun honetako Laboaren Uztaileko gonbidatuak.

Garazi Navas, azken gonbidatua

Zabalik aldiz zikloko azken kontzerturako. Garazi Navasek emanaldia eskai-

niko du uztailearen 29an 22:00etan Mikel Laboa plazan. Emanaldirako izen ematea zabalik duzue usurbilkultura.eus atarian.

Ziortzako kanpaldia jasotzeko laguntzaileak behar dira

Iazko etenaldiaren ondoren, Ziortza Gazte Elkarte Peñaloscintosea itzuli da. Hilabete hasieran altxa zuten kanpaldia, boluntario askoren laguntzari esker. Ondorengo oharra hain zuzen, beraiei zuzendua dago. Izan ere, gauzak jasotzeko ere euren premia izango dute-eta.

Ziortza Gazte Elkartek ohar bidez jakinarazi duenez, "kanpaldiaren des-

muntaiaren egunean zuen laguntza beharrezkoa izango zaigu". Uztailearen 31n jasoko dute kanpaldia. "Parte hartzeko prest baldin bazaude, bidali ieazaguzu mezu bat ziortzakanpaldia@gmail.com eposta helbidera zure izen-abizenak, telefono zenbakia eta kotxea ekarri dezakezun ala ez adieraziz. Gurasoekin batera gazteak ere etor daitezke".

Datozenak

Kultur eta kirol zikloa Zubietan

Kultur zikloa antolatu dute Zubietan. Izen ematea: <https://forms.gle/LpNTrqQPX7AybtXS9>

Uztailak 24 larunbata

■ 09:00 Mendi martxaren irteera (azalpenak 8:30etan).
■ 16:00 Mus txapelketa (Izen ematea 15:30etan).
■ 23:30 Kontzertuak: La Rekba, Perlata.

Uztailak 25 igandea

■ 10:30 Meza.
■ 12:00 Sokadantza.
■ 17:30 Herri kirol erakustaldia: Aizkolariak: Hodei Ezpeleta eta Aratz Mugerza. Harri-jasotzailea: Joseba Ostolaza.
■ 20:00 Bertsolariak: Ane Labaka, Jon Martin, Beñat Lizaso, Mantxi. Gai-jartzailea: Zortzitan Bertso Eskola.

Uztailak 31 larunbata

■ 10:30 Meza.
■ 10:30 Errebotea, Euskal Herriko Finala (kadeteak).
■ 16:00 Joko Garbi, Euskal Herriko Finalak: umetxoak, kimuak, gaztetxoak.
■ 17:00 Azoka.
■ 23:30 Kontzertuak: Ameba, Rodeo.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
·eguneko menua ·asteburuko menua
·karta ·oilasko erreak, pizzak..
JASOTZEKO EDO ETXERA ERAMATEN DUGU!
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 37 03 44

txirriStra
TABERNA
-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

Edertu zaitez!

newE
ESTETIKA

Ballancer[®]
presoterapia

Kliniko eta zientifikoki
irtenbide frogatua
mediku eta estetika
arloetarako modaltzen den
erantzuna



Munalurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Ile mota guztiak. Pertsona mota guztiak.

Egurdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia



- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

9.00etatik 19.00etara zabalik

**BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA**

KONTSULTA DOAN!

mista

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951

Estetika gidan parte hartzeko: 943 36 03 21 - publizitatea@noaua.eus



ANORGA TXIBI S.L

KRISTALDEGIA



Beirazko itxitura sistema berria!!!
Perfil bertikalik gabe!!
Zure balkoia itxi nahi baduzu galdeiguzu!
Aukera zabalak!



beirazko itxitura
seeglass one
perfil bertikalik gabe

komertzial instalazioak · beira bikoitza · segurtasun beirak · dutxa-itxiturak eta irristailuak
· ispiluak · barandak · kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45